

Hezkuntza-esperientzia pilotu bat
garatzeko lan-materiala

Herenegun!

Unitate didaktikoa

Memoria Hurbilari dagokion aldia
(1960-2018) DBHko 4. mailako eta
Batxilergoko 2. mailako Historia
irakasgaiari sartzeko proposamena

3. koadernoia

Lan-plana, **Batxilergoko 2.** mailako
Historia irakasgaiaren barruan



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Atariko

Unitate didaktiko honen lanerako plana aurkezteko uea iritsita, gogoratu beharra dago esperientzia pilotu baten aurrean gaudela. Horrela bada, egin nahi izan dugun proposamena, edukiaren sakontasuna galdu gabe, proposamen simple, bideragarri eta egingarria da, batez ere.

Eta izaera bikoitz hori –sakontasuna eta bideragarritasuna– funtsezkoa izan da proposamena diseinatzerakoan. Nolanahi ere, esperientzia pilotu hau lehenengo urrats bat baino ez da, orain aurkezten duguna hobetu, zabaldu eta osatzeko pentsatuta dagoen prozesua irekiko duena.

Esperientzia pilotu honen oinarrian ikus-entzuneke euskarri bat dago. Bost dokumental dira, 22-23 minutukoak. Horietako bakoitzak, hamarkada bat laburbiltzen du. Ikasleentzako materiala dira bost dokumental horiek. Ikasle bakoitzak esteka bat edukiko du dokumental sorta horretara sartzeko. Irakasleentzako oinarrizko materiala ere izango da, honako lan hau bideratzeko oinarrizko gida.

Hortik abiatuta, Memoria Hurbila deitu den aldiari (1960-2018) heltzeko, 55 minutuko sei saio egingo dira Batxilergoko 2. mailako Espainiako eta Euskal Herriko Historia garaikidearen irakasgaiaren barruan. Bost saio dokumental bakoitzarekin lan egitera bideratuta daude, eta seigarrena, berriz, ondorioak ateratzeko eta ebaluatzeko lanera.

Ikasletoa bideoak ikasgelatik kanpo ikustera gonbidatuko da. Flipped classroom metodologian (Ikus 4. koaderno, 2.1. puntua) laguntza izango dugu. Ondoren, lan egiteko hiru modu egongo dira: gogoe-ta pertsonala, lana talde txikietan eta bateratze-lana talde handian. Horrez gain, ikasletoa bukaerako sintesi-lan bat egin beharko du.

Kapitulu bakoitzean, *Herenegun!* unitate didaktikoa “Hamarkadako erreferentzia nagusiak” identifikatzen ditu, 5 edo 6, hain zuzen. Ikuspegi historiografikotik begiratuta, hezkuntzarako interes berezia duten arreta puntuak izango dira. Nolanahi ere, arreta puntu horiez gain, ikasleek zein irakasleek beste arreta puntu batzuk ere identifikatu ahal izango dituzte.

Koaderno honek, lehenengo, “hezkuntza-modulua ikasleei orokorrean aurkezteko eredu” dakar, baita sei fitxa ere, aurreikusitako sei saioetako bakoitzean jarraitu ahal izango den laneko plana zehazten dutenak.

Laneko plan hori, jakina, orientazio tresna bat da irakasleei euren zereginean laguntzeko. Irakasle bakoitzak malgutasunez eta askatasunez egokitu ahal izango du bere lan egiteko estilara eta ikasle-zen ezaugarrietara.

1. Hezkuntza-moduluaren aurkezpen orokorra ikasleen aurrean

Laneko plana 55 minutuko sei saiotan burutzeko dago pentsatua. Egingo den lan espezifikoaren aurkezpen orokor gisa, ideia hauek erabil daitezke:

Entzun duzue, ziurrenik, 2018ko maiatzean ETA desegin zela, 1960an jaio zen erakundea eta indarkeria erabili zuena Euskadin eta Espainian. Gure herrian azken 58 urte hauetan gertatutakoaren historia aztertzen saiatuko gara hurrengo bi asteetan. Sei saio eskainiko dizkiogu zeregin horri.

Bost bideo ditugu eskura, 22-23 minutukoak. Gure herriaren gertuko iraganaren bost hamarkadari buruzkoak dira, 1960ko hamarkadatik hasita. Lehenengo bost saioetan bost bideoen edukiaren inguruan hausnartuko dugu. Seigarren saioan ondorioak atera eta ikasitakoa ebaluatuko dugu.

Garrantzitsua da ikasgelara bideoa ikusita etortzea. Etxean ikus dezakezue, hemen ikastetxean bertan taldean, edo lagunartean. Oso interesgarria izan daiteke zuei gurasoekin eta aiton-amonekin ikustea, dokumental hauetan ikusiko duzuen beraiei bizitzea tokatu zitzaizen historiaren parte delako.

Garrantzitsua da halaber, bideoa ikusterakoan garrantzitsuenak iruditzen zaizkizuen egoerak edo gertakariak jasotzea paper batean, ikuspegi historikotik begiratuta.

Azken hamarkada hauetan gertatutakoa bost bideotan laburbiltzea konplexutasun handiko zeregina da, gertatutakoaren gaineko irakurketa ezberdinak baitaude. Bost dokumental hauetan bildutako errepaso historikoa egiteko, errealitatetik ahalik eta plural eta hurbilena egiteko, sentsibiltate eta ikuspegi pluralak dituzten adituek parte hartu dute, partekatzen duten hura bilatzen saiatu direlarik.

Bertatik bertara ezagutu ez dituzuen gertakari askoren berri izango duzue, garrantzitsua baita zuek ezagutzea errepikatu behar ez dena gogoan izateko. Iragan hau oso gertu dago, neurri batean gertuegi, eta geure eguneroko errealitatean eragin handia dauka.

Hain zuzen ere, horregatik, aurrera eramango dugun lanaren izenburua da "Herenegun! Unitate didaktikoa". Aztertuko duguna ez zela gertatu duela hainbeste denbora, nolabait esateko, herenegun gertatu zen.

(Esteka horretan ikus ditzakezue bideoak: <https://goo.gl/LAoq4M>)

2. Lanerako gidoiak

2.1. Lehenengo saioa: hirurogeiko hamarkada

I. kapituluaren laburpena. “60ko hamarkada”	Hamarkadako erreferentzia nagusiak
<p>Nazioartean, Pragako udaberria eta Vietnameko gerra nabarmendu behar dira. Francoren diktaduraren errepresioaren testuinguruan, kapitulu honetan bildutako gaiak dira, besteak beste, immigrazioa Euskadin, langileen egoera, kooperatiben mugimenduaren sorrera, ikastolen sorrera klandestinitatean, egoera kulturala eta soziala, “Ez Dok Amairu” mugimendua, errepresioa, zentsura edota tortura. Hamarkada honetan jaio zen ETA eta hasi ziren haren indarkeriazko lehenengo ekintzak.</p>	<p>Ikuspuntu historikotik, hona hemen gai garrantzitsuenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Aurretik eman ziren pobrezia, immigrazioaren eta langileen mugimenduaren errealitateak. -Diktadura, diktadorea, errepresioa, tortura edota zentsura. -Kulturaren, euskararen eta euskal identitatearen egoera. -ETAren jaiotza eta bere indarkeriazko lehenengo ekintzak. -Nazioarteko gertakariak. -Beste batzuk.

Lehenengo urratsa: Izandako inpresioen berri eman (15 minutu)

Talde handian hasiko gara lanean.

Serieko lehenengo bideoa ikusi duzue. Hirurogeiko hamarkadari buruzkoa da. Urte horietan, seguruenik, zuen aiton-amonak gazteak ziren. Garai hartako zenbait egoera ikusi dituzue. Orain, denon artean landuko dugu hamarkada horretan ikuspuntu historikotik zer iruditu zaizuen garrantzitsuena.

Irakaslea hamarkadako erreferentzia nagusien inguruan biltzen saiatuko da erantzunak, garrantzi historikoa azpimarratzeko. Zerranda irekia izango da, hau da, ikasleek zein irakasleek proposatuta, erreferentzia gehiago erantsi ahal izango da. Kartel batean, arbelean edo ohar-orri itsasgarri handietan jaso daitezke idatziz.

Bigarren urratsa: Lana talde txikietan (20 minutu)

Lanari ekingo diogu, baina talde txikietan (Erreferentzia moduan Phillips 6-6 metodologia har daiteke Ikusi 4. koaderno 2.2.puntua).

Eztabaidatu egingo dugu 5 edo 6 pertsonako taldeetan, hiru gairi buruz, 6 minutuko hiru tartetan. Proposatzen dena da bakoitzaren iritzien berri ematea gai hauei buruz:

-6 minutuko lehen tarte. Bideoan ikusitako gertakarien artean, azaldu ezagutzen ez zenituzten eta atentzia eman dizkizuten bi edo hiru gertakari historiko.

-6 minutuko bigarren tarte. Demokraziaren eta diktaduraren arteko aldeak definitu. Diktadura gisa identifikatzen dituzuen zenbait herrialde adierazi.

-6 minutuko hirugarren tarte. Imaginatu nola litzatekeen zuen bizimodua diktadura batean. Zer egingo zenukete errealitate hori aldatzeko?

Hirugarren urratsa: Bateratze-lana (20 minutu)

Talde handian ekingo diogu lanari berriz ere, eta azken ondorioak bateratuko ditugu.

Solasaldi batekin amaituko dugu. Diktadura baten ezaugarrietako bat da giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketa. Hona planteatzen dizuedan galdera: Nola urratzen dira giza eskubideak diktadura batean? Ikusi dugun bideoan, zeintzuk dira urratzen diren giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak?

Solasaldian agertuko diren kontzeptuak egituratzen lagundu dezake irakasleak: adierazpen askatasuna (zentsura), manifestazio-askatasuna (errepresioa), bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea (tortura), askatasun politikoak (alderdi politikoaren debekua), eskubide sozialak (pobrezia), kultura-eskubideak (euskara, identitatea).

Etterako lan moduan, egin ezazue hamarkada bakoitzaren laburpen bat idatziz. Horrela, aldi guztiaren laburpena izango duzue kapitulua eta eboluzio historikoa ikusi ahal izango duzue. Landutakotik bakoitzak ateratako ondorioak gehituko dizkiozue.

Gogoratu hurrengo saioa aurretik bost bideoz osatutako bideo-serie honetako bigarren kapituluak ikusi behar duzuela.

2.2. Bigarren saioa: hirurogeita hamarreko hamarkada

II. kapituluaren laburpena. "70eko hamarkada"	Hamarkadako erreferentzia nagusiak
Frankismoaren amaieran eta trantsizioaren hasieran, Euskadin tentsio-une handiak biziko dira: Burgosko epaiketa, Carrero Blancoren aurkako atentatua, Txiki eta Otaegiren fusilamenduak, martxoaren 3ko Gasteizko gertakariak, polizia-indarkeria, 1977ko lehen hauteskundeetako parte-hartzeari buruzko eztabaidak, edota Konstituzioaren onarpena 1978an eta Estatu-tuarena 1979an. Aldi berean, ETArek atentatu-segida. EAJK bakearen aldeko lehenengo manifestazioa deituko du. Kapitulu honetan, biktimen lekukotza balioak ezagutuko dira.	Ikuspuntu historikotik, hona hemen gai garrantzitsuenak: -Burgosko prozesua eta heriotza-zigorak. -Carrero Blancoren aurkako atentatua. -Gasteizko gertakariak. -Francoren heriotza eta trantsizioa. -Amnistia. -ETAk 244 pertsona hil hiru urtetan. -Deia eta Egin egunkarien sorrera. -Beste batzuk.

Lehenengo urratsa: Izandako inpresioen berri eman (15 minutu)

Talde handian hasiko gara lanean.

Serieko bigarren bideoa ikusi duzue. Hirurogeita hamarreko hamarkadari buruzkoa da. Urte horietan jaioren ziren, seguruenik, zuen gurasoak. Garai hartako zenbait egoera ikusi dituzue. Orain, denon artean landuko dugu hamarkada horretan ikuspuntu historikotik zer iruditu zaizuen garrantzitsuenak.

Irakaslea hamarkadako erreferentzia nagusien inguruan biltzen saiatuko da erantzunak, garrantzi historikoa azpimarratzeko. Zerrenda irekia izango da, hau da, ikasleek zein irakasleek proposatuta, erreferentzia gehiago erantsi ahal izango da. Kartel batean, arbelean edo ohar-orri itsasgarri handietan jaso daitezke idatziz.

Bigarren urratsa: Lana talde txikietan (20 minutu)

Lanari ekingo diogu, baina talde txikietan (Erreferentzia moduan Phillips 6-6 metodologia har daiteke Ikusi 4. koa-dernoa 2.2.puntua).

Eztabaidatu egingo dugu 5 edo 6 pertsonako taldeetan, hiru gairi buruz, 6 minutuko hiru tartetan. Proposatzen dena da bakoitzaren iritzien berri ematea gai hauei buruz:

-6 minutuko lehen tartea. Bideoan ikusitako gertakarien artean, azaldu ezagutzen ez zenituzten eta atenzioa eman dizkizuten bi edo hiru gertakari historiko.

-6 minutuko bigarren tartea. Saia zaitezte hamarkada honetako egoera edo gertakari positibo batzuk aipatzen, baita negatiboak ere.

-6 minutuko hirugarren tartea. Carmen Torres Riparen lekukotzak iradokitzen dizuen bateratu denon artean.

Hirugarren urratsa: Bateratze-lana (20 minutu)

Talde handian ekingo diogu lanari berriz ere, eta azken ondorioak bateratuko ditugu.

Solasaldi batekin amaituko dugu. Zein da zuen iritzia heriotza-zigorrari buruz? Zein da zuen iritzia ETAk eragindako heriotzei buruz? Ba al du inork beste norbait hiltzeko eskubiderik?

Solasaldian agertuko diren kontzeptuak egituratzen lagundu dezake irakasleak. Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpena jo daiteke, eta, batez ere, hitzaurrea eta 1. eta 3. artikulua irakurri.

Etzerako lan moduan, gogoratu hamarkada bakoitzaren laburpen bat egin behar duzuela, idatziz. Horrela, aldi guztiaren laburpena izango duzue kapitulua eta eboluzio historikoa ikusi ahal izango duzue. Landutakotik bakoitzak ateratako ondorioak gehituko dizkiozue.

Gogoratu hurrengo saioa aurretik bost bideoz osatutako bideo-serie honetako hirugarren kapituluak ikusi behar duzuela.

2.3. Hirugarren saioa: laurogeiko hamarkada

III. kapituluaren laburpena. "80ko hamarkada"	Hamarkadako erreferentzia nagusiak
<p>Dokumental honetan biltzen da ETAk pertsona gehien hil zituen urteek eragindako inpaktua, biktimen lekukotzak eta haiek pairatu zuten bazterketa, edota Hipercor-ekoa bezalako atentatu dramatikoak. Hamarkada honetan agertuko da GAL. Gernikako Autonomia Estatutu onartu berria martxan jarriko da. Azpimarratzekoak dira, era berean, Lemoizko zentral nuklearraren aurkako mugimendua eta Gesto por la Paz (Bakearen aldeko Koordinakundea) elkartearen sorrera. Aldi berean, EAEko krisi ekonomikorik handiena bizi izan zen, eta arazo berri bat sortu ere: heroina eta HIESA.</p>	<p>Ikuspuntu historikotik, hona hemen gai garrantzitsuenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Gernikako Autonomia Estatutua. -ETAren atentatuak. Hipercor, biktimak. -GAL, Lasa eta Zabala, tortura... -Bakearen Aldeko Koordinakundea jaioko da. -Krisi sozialak: Lemoiz, Euskalduna, heroina... -Beste batzuk.

Lehenengo urratsa: Izandako inpresioen berri eman (15 minutu)

Talde handian hasiko gara lanean.

Serieko hirugarren bideoa ikusi duzue. Laurogeiko hamarkadari buruzkoa da. Urte horietan, seguruenik, zuen gurasoak gazteak ziren. Garai hartako zenbait egoera ikusi dituzue. Orain, denon artean landuko dugu hamarkada horretan ikuspuntu historikotik zer iruditu zaizuen garrantzitsuena.

Irakaslea hamarkadako erreferentzia nagusien inguruan biltzen saiatuko da erantzunak, garrantzi historikoa azpimarratzeko. Zerronda irekia izango da, hau da, ikasleek zein irakasleek proposatuta, erreferentzia gehiago erantsi ahal izango da. Kartel batean, arbelean edo ohar-orri itsasgarri handietan jaso daitezke idatziz.

Bigarren urratsa: Lana talde txikietan (20 minutu)

Lanari ekingo diogu, baina talde txikietan (Erreferentzia moduan Phillips 6-6 metodologia har daiteke Ikusi 4. koaderno 2.2.puntua).

Eztabaidatu egingo dugu 5 edo 6 pertsonako taldeetan, hiru gairi buruz, 6 minutuko hiru tartetan. Proposatzen dena da bakoitzaren iritzien berri ematea gai hauei buruz:

-6 minutuko lehen tartea. Bideoan ikusitako gertakarien artean, azaldu ezagutzen ez zenituzten eta atentzioa eman dizkizuten bi edo hiru gertakari historiko.

-6 minutuko bigarren tartea. Hamarkada honetan, indarkeriak eta terrorismoak biktima asko eragin zuten. Pertsona maite bat indarkeriaz hiltzen badute, nolako marka utz dezake gertaera horrek pertsona baten bizitzan?

-6 minutuko hirugarren tartea. Hamarkada honetan era desberdinetako indarkeria eta terrorismoa egongo da. Zergatik da onartezina indarkeriari indarkeriarekin erantzutea? Zergatik da onartezina tortura?

Hirugarren urratsa: Bateratze-lana. 20 minutu

Talde handian ekingo diogu lanari berriz ere, eta azken ondorioak bateratuko ditugu.

Solasaldi batekin amaituko dugu. Hona proposatzen dizuedan galdera: Helburu bat lortzeko, dena da zilegi?

Irakasleak solasaldian lagundu dezake kontzeptu kontrajarriak sartuta: pazientzia-pazientziarik eza; justizia-mendekua; indarkeria-indarkeriarik eza; bide demokratikoak-bide antidemokratikoak; arrazoi osoa eduki-arrazoia zati bat eduki...

Etterako lan moduan, gogoratu hamarkada bakoitzaren laburpen bat egin behar duzuela, idatziz. Horrela, aldi guztiaren laburpena izango duzue kapitulua eta eboluzio historikoa ikusi ahal izango duzue. Landutakotik bakoitzak ateratako ondorioak gehituko dizkiozue.

Gogoratu hurrengo saioa aurretik bost bideoz osatutako bideo-serie honetako laugarren kapitula ikusi behar duzuela.

2.4. Laugarren saioa: laurogeita hamarreko hamarkada

IV. kapituluaren laburpena. "90eko hamarkada"	Hamarkadako erreferentzia nagusiak
ETAk bere indarkeria-estrategia gogortu zuen hamarkada honen hasieran, eta 1998an su-etena ezarri. Hala ere, urtebete eta erdi beranduago su-etinari amaiera eman zion. Hamarkadaren hasieran Ajouria Eneko Ituna estreinatu zen, eta amaieran, aldiz, Lizarra-Garazikoa. Dokumentalean, hasteko, Miguel Ángel Blanco Ermuko zinegotziaren heriotza ekartzen da gogora, bai eta Herri Batasunak Oldartzen txostena onartu zueneko birpasatu ere. Garai honetan jarriko da martxan ETAKo presoen dispersio-politika.	Ikuspuntu historikotik, hona hemen gai garrantzitsuenak: -Ajouria Eneko Itunaren sinadura. -ETAren atentatu bortitzak. -Akordio-saiakerak, Argeletik Lizarrara. -ETAren aurka gero eta mobilizazio gehiago. Elkarrizkariak. -Polizia-operazioak. Dispersioaren hasiera. Egin egunkaria itxi. -Borroka antimilitaristaren eta intsumisoen protagonismoa. -Beste batzuk.

Lehenengo urratsa: Izandako inpresioen berri eman (15 minutu)

Talde handian hasiko gara lanean.

Serieko laugarren bideoa ikusi duzue. Laurogeita hamarreko hamarkadari buruzkoa da. Garai hartako zenbait egoera ikusi dituzue. Orain, denon artean landuko dugu hamarkada horretan ikuspuntu historikotik zer iruditu zaizuen garrantzitsuena.

Irakaslea hamarkadako erreferentzia nagusien inguruan biltzen saiatuko da erantzunak, garrantzi historikoa azpimarratzeko. Zerrenda irekia izango da, hau da, ikasleek zein irakasleek proposatuta, erreferentzia gehiago erantsi ahal izango da. Kartel batean, arbelean edo ohar-orri itsasgarri handietan jaso daitezke idatziz.

Bigarren urratsa: Lana talde txikietan (20 minutu)

Lanari ekingo diogu, baina talde txikietan (Erreferentzia moduan Phillips 6-6 metodologia har daiteke Ikusi 4. koa-dernoa 2.2.puntua).

Eztabaidatu egingo dugu 5 edo 6 pertsonako taldeetan, hiru gairi buruz, 6 minutuko hiru tartetan. Proposatzen dena da bakoitzaren iritzien berri ematea gai hauei buruz:

- 6 minutuko lehen tarte. Bideoan ikusitako gertakarien artean, azaldu ezagutzen ez zenituzten eta atentzioa eman dizkizuten bi edo hiru gertakari historiko.
- 6 minutuko bigarren tarte. Zuen iritziz, hamarkada honetan zerk bultzatu zuen jendea kalera irten eta andanaka ETAren indarkeriaren aurka mobilizatzeraz?
- 6 minutuko hirugarren tarte. Zuen iritziz, zergatik huts egin zuten adostutako konponbideak lortzeko saiakerak?

Hirugarren urratsa: Bateratze-lana (20 minutu)

Talde handian ekingo diogu lanari berriz ere, eta azken ondorioak bateratuko ditugu.

Solasaldi batekin amaituko dugu. 90eko hamarkadan elkarriketan oinarritutako zenbait bake-prozesu eman ziren munduan: Irlanda, Hegoafrika, El Salvador...Gurean, 2006rarte Espainiako gobernu guztiak saiatu ziren ETAren negoziatzen. Saiakera horiek, baina, ez zuten emaitzarik izan. Hona eztabaidatzeko gaia: batzuen ustez, elkarriketa eta akordioa dira bakerako biderik onena, beste batzuen ustez, ordea, hori indarkeriaren xantaiari men egitea da eta polizia-lana da bidea. Zer deritozue?

Irakasleak solasaldian lagundu dezake gogoratuz Euskadiren kasuan bakea bilatzeko bidean aukera-sorta bati buruzko eztabaida ireki zela: "irtenbide negoziatua", "irtenbide poliziala", "bien konbinazioa", "nazioarteko bitartekaritzaren irtenbidea", "alde bakarrak erabakitako amaiera" (azkenean hori gertatu da 2010 eta 2018 artean).

Etterako lan moduan, gogoratu hamarkada bakoitzaren laburpen bat egin behar duzuela, idatziz. Horrela, aldi guztiaren laburpena izango duzue kapituluka eta eboluzio historikoa ikusi ahal izango duzue. Landutakotik bakoitzak ateratako ondorioak gehituko dizkiozue. Gogoratu hurrengo saioa aurretik bost bideoz osatutako bideo-serie honetako azken kapitulua ikusi behar duzuela.

2.5. Bosgarren saioa: XXI. mendeko lehen hamarkada

V. kapituluaren laburpena. “Zero urtea”	Hamarkadako erreferentzia nagusiak
<p>ETAk Lizarrako su-etena apurtu eta eragin handia duten atentatuekin jarraitzen du; bere amaiera, baina, abiatuta dago. Zigor-arloan, judizialean eta polizialean “ETAren inguruaren” aurkako neurriak gogortu egingo dira. 2004an, martxoaren 11ko atentatu yihadistak sekulako eragina izango du. 2006an, T4ko atentatuak erabat suntsituko ditu irtenbide negoziatu baterako azken saiakerak. Era askotako indarkeriaren biktimen ahotsak entzuten hasten dira, bizikidetzaren alde egiten elkarrekin. 2011ko urrian, Aieteko bake konferentzia eta gero, ETAk terrorismoaren behin betiko amaiera iragarriko du.</p>	<p>Ikuspuntu historikotik, hona hemen gai garrantzitsuenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -ETAren azken atentatuak. -Su-etenak eta huts egindako akordiorako azken saiakerak. -Ilegalizazioak, Egunkaria itxi... “Dena da ETA”. -Martxoaren 11ko atentatua. -Biktimen ahotsak bizikidetzaren alde. -Aieteko konferentzia eta ETAren amaiera. -Beste batzuk.

Lehenengo urratsa: Izandako inpresioen berri eman (15 minutu)

Talde handian hasiko gara lanean.

Serieko bosgarren bideoa ikusi duzue. XXI. mendeko lehen hamarkadari buruzkoa da. Garai hartako zenbait egoera ikusi dituzue. Orain, denon artean landuko dugu hamarkada horretan ikuspuntu historikotik zer iruditu zaizuen garrantzitsuena.

Irakaslea Hamarkadako erreferentzia nagusien inguruan biltzen saiatuko da erantzunak, garrantzi historikoa azpimarratzeko. Zerronda irekia izango da, hau da, ikasleek zein irakasleek proposatuta, erreferentzia gehiago erantsi ahal izango da. Kartel batean, arbelean edo ohar-orri itsasgarri handietan jaso daitezke idatziz.

Bigarren urratsa: Lana talde txikietan (20 minutu)

Lanari ekingo diogu, baina talde txikietan (Erreferentzia moduan Phillips 6-6 metodologia har daiteke Ikusi 4. koaderno 2.2.puntua).

Eztabaidatu egingo dugu 5 edo 6 pertsonako taldeetan, hiru gairi buruz, 6 minutuko hiru tartetan. Proposatzen dena da bakoitzaren iritzien berri ematea gai hauei buruz:

- 6 minutuko lehen tartea. *Bideoan ikusitako gertakarien artean, azaldu ezagutzen ez zenituzten eta atentzioa eman dizkizuten bi edo hiru gertakari historiko.*
- 6 minutuko bigarren tartea. *Bideoan ikusitakoaren arabera, zein iruditzen zaizue dela ideia baliagarriena elkarbizitza hobetzeko?*
- 6 minutuko hirugarren tartea. *ETAren indarkeriak jarraituko balu, zer izango litzateke desberdin gaur egun? Indarkeria egon ala ez egon, zer aldatzen da gizarte batean?*

Hirugarren urratsa: Bateratze-lana (20 minutu)

Talde handian ekingo diogu lanari berriz ere, eta azken ondorioak bateratuko ditugu.

Bost bideoetan biktima desberdinen ahotsak entzun ditugu. Batzuk bakardadea aipatu dute, baztertuak sentitu zirela; beste batzuk izugarritzko sufrimendua aipatu dute; beste batzuk euren mina elkarbizitzaren aldeko apustu bihurtzea lortu dutela. Horietako inork ez zuen merezi gertatu zitzaiena jasan behar izatea. Hona eztabaidarako galdera: Gizarteak nola babestu behar ditu biktimak eta egin zaien kalte bidegabea modu batean edo bestean nola konpondu behar du?

Irakasleak solasaldian lagundu dezake honako kontzeptu hauek sartuta: biktimei dagozkien egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak, biktimak babesteko legeak, iraganaren memoria kritiko bat egitearen garrantzia, gorrotoa gainditzea, gizartearen zauriak sendatzea, elkarbizitza, etorkizuna, esperantza...

Etterako lan moduan, gogoratu hamarkada bakoitzaren laburpen bat egin behar duzuela, idatziz. Horrela, aldi guztiaren laburpena izango duzue kapituluka eta eboluzio historikoa ikusi ahal izango duzue. Landutakotik bakoitzak ateratako ondorioak gehituko dizkiozue.

2.6. Seigarren saioa: Ondorioak eta ebaluazioa

2.6.1. Ikasleentzako fitxa

I. Lan-hipotesi bat amaierako diagnostiko baterako

Txarrena	Onena	Ondorioz
<p>Azken 60 urte hauetan gertatu zaizkigun gauzarik txarrenak bi gako hauekin daude lotuta:</p> <ul style="list-style-type: none">-Giza eskubideak errespetatu ez izana, indarkeria erabiltzea zilegi zela pentsatuta. Ideia baten defentsak giza duintasunak, biziak eta giza eskubideek baino balio gehiago zuela pentsatu izana.-Aniztasuna errespetatu ez izana. Desberdina dena edo beste era batera pentsatzen duena ez onartzea eta ez errespetatzea. Egia osoaren jabe sentitzea (dogmatismoa).	<p>Azken 60 urte hauetan gertatu zaizkigun gauzarik onenak bi zutabean daude oinarrituta:</p> <ul style="list-style-type: none">-Giza eskubideen errespetua eta defentsa.-Aniztasunaren errespetua eta defentsa.	<p>Etorkizunerako ondorioa bi puntu hauetara bideratzen da:</p> <ul style="list-style-type: none">-Giza eskubidekiko konpromisoa-Pluralismoarekiko konpromisoa

II. Giza eskubideak

·Giza eskubideen definizioa, Nazio Batuen arabera

Gizaki orori dagozkion eskubideak dira, inolako bereizketarik egin gabe nazionalitatea, bizilekua, sexua, jatorri nazionala edo etnikoa, larru-kolorea, erlijioa, hizkuntza edo beste edozein ezaugarri dela bide. Denok ditugu giza eskubide berberak, inolako bereizkeriarik gabe. Eskubide horiek elkarri lotuta daude, elkarren mende eta zatiezina dira.

·1960a geroztik nagusiki kaltetutako giza eskubideak

1. atala. Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra.

2. atala. Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarte-ko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. (...)

3. atala. Norbanako guztiak dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

5. atala. Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

9 atala. Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

19 atala. Gizabanako guztiak dute iritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritzia mugarik gabe eta nolanhako adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

30 atala. Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.

III. Aniztasuna

Aniztasunaren definizioa

·Aniztasunaren printzipioaren arabera, gizartearen eta bizikidetzaren badira hainbat ideologia, joera, jarrera, iritzi eta proposamen, eta hori, errespetatu ez ezik, sustatu ere egin behar da.

·Sistema demokratiko baten osagaia da dibertsitate hori eta giza eskubideak errespetatzeko konpromisoa da pluraltasunaren adierazpenaren muga nagusia.

·Aniztasunak dibertsitatea aitortzea dakar, elkarrizketa sustatzea eta besteekiko inklusioa, errespetua eta tolerantzia; besteek desberdina izateko duten eskubidea, baita desberdintasun hori adierazteko eskubidea ere errespetatzea.

2.6.2. Lanerako gidoia irakasleentzat

•Lehenengo urratsa: Ikasleentzako fitxa batera irakurri eta komentatu (20 minutu)

Talde handian hasiko gara lanean. Lehenengo, ahots goran irakurriko dugu Ikasleentzako fitxa. Gero, solasaldia denen artean.

Irakurri berri dugun testuari buruz, bada inor ulertzen ez den zerbait argitzea nahi duena?

Edukiari buruz eztabaidatuko dugu. Testu honetan hipotesi bat planteatzen da gertatu zaigun onenaren eta txarrenaren inguruan. Bi kontzeptu sartu dira: giza eskubideak eta aniztasuna.

Hitz egin dezagun lehendabizi giza eskubideei buruz. Zer dira eta zer adierazten dute giza eskubideek?

Hitz egin dezagun aniztasunari buruz. Onartzen al dugu desberdina dena edo beste era batera pentsatzen duena? Egia eta arrazoi osoaren jabe garea pentsatzen dugu?

•Bigarren urratsa: Lana ohar-orri itsasgarriekin (post-it) (20 minutu)

Talde txikietan jardungo dugu orain.

5 edo 6 pertsonako taldeetan egingo ditugu solasaldiak. Aurreko saioetan, hamarkada bakoitzari buruzko oharrak jaso dituzue idatziz. Eskema horiek oinarri hartuta, talde bakoitzean hamabi ohar-orri izango dituzue betetzeko. Ohar-orri horietan idatziko dituzue azken hamarkadetako onena eta txarrena adierazten duten egitateak. Idatzi hiru errealitate positibo, gutxienez. Idatzi letra larri, handi eta argiarekin.

Ordu laurden bat geroago, taldeek mural batean jarriko dituzte ohar-orriak. Bi zati izango ditu muralak: gertatu zaizkigun gauzarik txarrenak alde batean eta onenak bestean.

Dagokion tokian itsatsiko ditugu ohar-orriak. Amaitutakoan, irakurri egingo dugu isilean.

Hirugarren urratsa: Lan pertsonala (5 minutu)

Saia gaitzen bakoitza ondorioen bat ateratzen. Orri batean hiru galderari erantzuteko eskatuko diegu ikasleei.

Ohar-orriak irakurri eta gero, ondorio pertsonalak aterako ditugu. Hiru galdera egingo dizkizuet, hurrengo minutuetan erantzuteko:

-Lehenengo galdera: Zein da gure memoria hurbilari buruz ikasi dudan gauzarik garrantzitsuena?

-Bigarren galdera: Etorkezunean zer ez litzateke errepikatu behar?

-Hirugarren galdera. Nire eguneroko bizitzan nola aplikatu dezaket giza eskubideekiko eta aniztasunarekiko konpromiso bat?

Laugarren urratsa: Bateratze-lana eta ebaluazioa (10 minutu)

Talde handian ekingo diogu lanari berriz ere, eta azken ondorioak bateratuko ditugu. Lehenengo, ebaluazio-fitxa bat beteko dugu (Ikusi 1. eranskina). Gero, bateratu egingo ditugu ikasitakoak.

Bateratze lanarekin amaituko dugu. Baina, lehenengo, hartu minutu pare bat edo hiru ebaluazio-fitxa hau betetzeko.

Orain minutu batzuk geratzen zaizkigu garrantzitsuena iruditu zaigun hura partekatzeko. Guztiok hitz egingo dugu eta elkarri entzungo diogu. Zuetako bakoitzak gainontzekoei adierazi behar digu, hitz bakar batekin, biren edo hirurekin edo esaldi batekin, sei saio hauetan ikusi duen guztitik zer iruditu zaion garrantzitsuena.

Arbelean edo horma-irudi batean, irakasleak hitz batekin edo birekin eskuhartze bakoitza laburbilduko du. Lortutako hitzen mapak, moduren batean, esperientzia honen laburpena irudikatuko du. Horma-irudi honi zein azken hamarkadetako txarrena eta onenari buruz post-it bidez osatutakoari mugikorarekin argazki bat egiteko gonbidapena luzatuko zaie ikasleei.

3. Eranskina. Seigarren saiorako ebaluazio-fitxa

Ikasleentzako ebaluazio-fitxa

1. Sei saio hauetan gure historia hurbilari buruzko gauza berriak ezagutu dituzu.

Bat ere ez Gutxi Batzuk Nahiko Asko

2. Gure historia hurbilari buruzko lana zein interesgarria iruditu zaizun adierazi 1etik 10erako puntua-
zioa emanez: puntu 1ek esan nahi du ez dela bat ere interesgarria izan; 10 puntuk, oso interesgarria
izan dela.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

3. Baloratu 1etik 10era saio hauetan ikusi ditugun bideoak. 1 izango da balorazio txarrena, eta 10, onena.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

4. Ebaluatu sei saio hauetan gelan egin ditugun lanak eta jarduerak.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

5. Egun hauetan landutako gauzen artetik, adierazi zer izan den garrantzitsuena.

6. Lan hau hobetzen lagundu dezakeen edozein iradokizun, idatzi hemen.

Irakasleentzako ebaluazio-fitxa

1. Herenegun! unitate didaktikoaren balorazio orokorra.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

2. Bideoen balorazioa.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

3. Baloratu ezazu saioak dinamizatzeko irakasleen orientazio-gida bezala 2. koadernoa zenbateraino izan den erabilgarri.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

4. Baloratu ezazu saioetako denboren banaketa.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

5. Saioetan, non aurkitu duzu zailtasun gehien?

6. Unitate didaktiko hau hobetzeko iradokizunak.
